

- **Zer berri:** 2011ko udal aurrekontuak onartu egin dituzte.
- **Entzutekuak:** "Kosta ala kosta" udaleku euskaldunak herriko gazteentzat.

soraluzeko
hamabostekaria **241.** alea
2011ko apirilaren 8an

@ pil-pilean



SORALUZE 1936

**75 URTEKO
ISILTASUNA HAUSTEN**

SORALUZE 1936
memoria berreskuratzen

EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan kalea 5. EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA



Lehen mailako pelota partidak

Soraluzen

Apirilaren 15ean
gaueko 22:15ean

**1. partida: 2. mailako
binakako partida**

2. partida:
Laskurain
Idoate edo Paskual
Buruzburuko aurrekanporaketako partida

Sarrerak aurrez hartzeko: Olaia 661 259 009
Egunean bertan takillan izango dira salgai

Amoluzaleak





EGOITZ UNAMUNO



ARITZ ARIZAGA

GIZON HARRIGARRIAK

Ez nok ni izan sekula indar haundiko mutila. Beso mehiak, eskutur eta atzapar txikixak... Aurrekuan Leitzako Peruharri museuan egon ginduaz lagun kuadrila bat. Perurenatarrak zabaldu daben harrixaren museo edar horretan. Probak egitteko harri bat jeuan eta heldu najotsan. Heldu bai baina jaso...

Gizon indartsua dok Iñaki Perurena baina aston harridurarako bajakik leun leun berba egitten be udaberrixaz edo harrixekiko daukan harremanaz. Zertaz ez. Bizitza guztian indarra lantzeraz dedikatu dan pertsona bat zela izan leikek hain pertsona landua beste aldetik. Ze pentzaua emoten jok. Indarrak eta zakartasunak etxaukek batera jua biharrik gizona izateko.

Asko berba egitten dok emakume eta gizonen arteko parekidetasun inguruan. Ixa beti emakumiakin lotzen dan gai bat dok. Herrixan esaterako Emakumien Topagunia dok gaur egun gai horren inguruan zeozer proposatzen daben talde bakarra eta hitzaldi, tailar, kafe tertulia... eta abarrak antolatzen dittuana. Parte hartzen dabena be emakumiakin dituk hamarretik hamar. Eta gizonak? Gizonok etxakau ezer aldatzeko, mejozatzeko, esateko? Aritz, hi be gizona haiz ta ze daukak esateko?

Kaixo Egoitz! Perurena, horrek danerako balio jok: alkatte, enpresario... Urte askoko lana jaukak gizon horrek telebistan, eta hortik be ikasiko jua lasai eta leun-leun berba egitten. Dana dala adibide ona dok, indartsua izatiagaittik ez dala biharrezkua zakarra izatia. Indar askorik gabe bajaok munduan jende zakarrak be. Hementxe, Plaentxian bertan bajaozik indar askon biharrik gabe, zakarkerixetan ibiltzeko baloria daukatenak be. Beittik, Santana atzeko bankuetan jarritta genduaz, lasai asko, eta badaezpada gauan iluntasuna aprobetxatuz, baten batek basura poltsia balkoittik ibaira bota jua. Oin ez asko izan zua gainera, hil hontan bertan. Ideiarik be ez jakat gizonaek ala andrazkua zan, baina lotsagabe galanta zala, hori seguru jakixat. Gaira etorritta, gizonaek eta emakumezkuen arteko parekidetasun gaixa, egixa dok; beti emakumiekin lotzen juau. Eta, nere ustez, ez zua holan izan biharko. Bi sexuen arteko parekidetasuna lortzeko bai alde batetik bai bestetik lana egin biharra jaok. Alperrik iruditzen jatak batzuk ahalik eta gehixena egittia, bestiak ezer egitten ez daben bittartian, holan aurrera pausorik ezin dalako emon. Oin artekua holan izan da eta normalizauta jaukagu emakumiakin bakarrak jua Topagunera. Hori aldatzeko egin biharreko lana ez dok erreza izango, baina zela edo hala, gizonaek hara hurbildu gaittezen zeozer pentsatu biharko genduke.

Udaberri on eta goxo bat pasatu!

“Indarrak eta zakartasunak etxaukek batera jua biharrik gizona izateko.”

Egoitz Unamuno

“Plaentxian bertan bajaozik indar askon biharrik gabe, zakarkerixetan ibiltzeko baloria daukatenak”

Aritz Arizaga

Goguan hartzeko

Ekinaren indarra ekinaz neurtzen da
Euskal atsotitza



GUTUNAK

17+5

22 urte luze pasatu dira Peio Etxeberria plaentxiarra espetxeratu eta espainiar mendekugosearen gatibu daukatenetik. Mendekua baita eta ez besterik gure senide eta lagunekin egiten ari direna!. Peiok bere garaian ezarritako kondena aspaldi bete bazuen ere oraindik orain Castellon daukate bahitua bere inguru soziala ere disperstioaren atzaparretara kondenatuz. PSOEk darabilen espetxe politika krudelaren adibide garbia da Peiorekin egiten ari direna. Lehenengo 17 urtetako kondena ezarri, behin hau beteta espetxean mantendu eta hurrengo astean propio asmatutako doktrina inposatu, ondorioz beste 13 urte betetzera behartzen zutelarik. Peiok 2006ko irailaren 10etik kalean behar luke baina presoek kolektiboko beste 89 kide bezala (tartean Lurdes plaentxiarra) bizi arteko zigorra betetzera kondenatu dute. Argi utzi nahi dugu presoek zein euren inguruak pairatzen duen mendeku honen aurrean ez dugula

besoak gurutzaturik geratzeko asmorik. Urratsez urrats bidean aurrera egiteko unea da, urtarrilean Bilbon bezala orain herriz herri dagokigu bidea marraztu eta konpromisoak adostea. Indarrak batu eta amaitu dezagun mendekuarekin!

Zentzu honetan hainbat deialdi garrantzitsu gogorarazi nahi ditugu.

Apirilak 16: Gatzari ongi etorria (31 urtez espetxean).

Maiatzak 7: Elurtxuri ongi etorri (30 urtez espetxean).

Maiatzak 28: Elkartasun eguna.

Bukatze gure animo eta besarkada beroena espainiar zein frantziar kartzeletan dituzten Euskal Preso Politiko guztioi. Zuek barrutik eta guk kanpotik lortuko dugu! Euskal Presoak Etxera dagozkien eskubideen jabe!

Bizi osorako zigorrik ez!

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

 **pil-pilean**

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZEGO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Ubane Madera
Tripa kontuak

Estas enoormeeeeeeee, horixe entzun behar izan dut oraingo astean bertan trenbidetan pasean nindoala, berez justu-justu agurtzen nauen emakume baten ahotik. *Estas goooordaaaaaaa*, horixe ere esan dit orain hilabete eskas Plazentziako dendari batek, bere dendan erosketa egin ostean. *Jo, laster ez zara atetik kabituko!* Beste hori ere entzun behar izan dut. Kanean sekula agurtu ez nautenek tripa ukitu didate, ezagutzen ez nautenek ere bai eta interrogatorio ederrei erantzun behar izan diet... Eta kasu guztietan ere, mingainari eutsi, eta haserretu barik, ondo erantzun diet. Izan ere, haurdun nago, eta hasita nago konturatzeko zenbait egoeratan jendeak edozer gauza edozein modutan esateko eskubidea hartzen duela. Aldiz, inori ere ez zaio okurrizten berezko loditasuna duen bati halakorik esaterik, edo zikin-zikin doan ezezagun bati antzekorik esaterik... Eta "adituek" abisatu didate, gainera, oraindik okerragoa izango dela umearekin kalera irteten naitenean; orduan umea zela hazi, tapatu, jaten eman, eraman... behar dudana esango didatela. Enfin, tabernetan ipintzen duen moduan, "onartzeko eskubidea erreserbatu" egingo dut.

“Kosta ala kosta” udaleku euskaldunak gaztetxoentzat

Eta udan zer? Pil-pilean, Txaxilipurdi eta Jardun Euskara Elkarteek uztailleko oporretan abenturaz beteriko aisialdi eskaintza plazaratu berri dute, “Kosta ala kosta” udalekuak. Euskal Herriko txoko ezberdinak ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera bikaina izango dela aurreratuz, izena eman eta mendi gailur eta olatuengainetik oinatzak lagatzeko proposamena egin nahi diete herriko gazteei.

Zegaittik “Kosta ala kosta”?

Udaleku ibiltarixak dira guk proposatutakoak. Orduan, abenturaz betetako bidia kosta ala kosta ziharkatu eta bai! helmugara helduko garala sinistu bihar dogulako. Bidaixa, kostaldian bukatzen dala be aurreratzen dau udalekuan izenak.

Animatu herriko gaztiak parte hartzera!

Aurtengo proposamena guztiz berritzailea da. Uztailan 5etik 16ra bittartian Arrasateko, Bergarako eta Sorluzeko gaztiak alkartu, lagun berririk egin, abenturak bizi eta emozinuak sentitu, ondo pasatu, inguruak ezagutu, eta tailer ugari! Hau da, berba gutxitan gure eskaintziak jasotzen dabena. Abenturazko udalekuak dirala eta, ur-jolas eta kirolak ez dira faltako eta tailer ezberdinak be egitarauan parte izango dira.

Aurten Debagoienara egin dogu salto. Zegaittik?

Kukumixok antolatutako udaleku ibiltarixen balorazina positibua bada be, aurten anbizino haundiko apustua egin nahi izan dogu, gaztientzat aberasgarria-



Arrasate, Bergara eta Sorluzeko euskara elkarteek elkarlanean antolatu dituzte udalekuak.

gua. Hiru elkartiak batuz, indar haundixagua izatia lortu dogu, beraz, eskaintza hobia. Sorluzeko inguruak ezagutuko badittugu be, Araban hasiko da udalekua eta Zarautzen bukatu!

Zein aisialdi mota eskaini nahi dozue?

Aisialdixa ez dogu denporia betetzeko tresna moduan ulertzen, aisialdixa gozatzeko da, eta ikasteko, zegaittik ez. Harremanetan oinarritutako beste eredu askiango bat landuko dogu, eguneroko zorrotasunetik urten eta harreman ezberdinak lantzeko aukeria be badaguala ikusi eta probatzeko. “Kosta ala kosta” euskaraz gozatzeko oporraldixa dala ezin ahaztu.

Zeini zuzenduta dago?

DBH institutuko 3. eta 4. mailako gaztientzat, 14-16 urte bittarteko gaztintzat da udalekua. Izena emoteko eskolan banatutako eskuorrixa bete eta Pil-pileanera gerturatu bihar dira maiatzan 6xa baino lehen.

Arabian hasi eta Zarautzen bukatuko da oporraldixa.

Juan Luis Ibarzabal - Alnhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-B Behea
20.590 Sorluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegoia.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Hnos. BENITO ANAIAK

Etxe eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORLUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Matxinsalto Eguna gazteon gozagarri

Matxinsalto eguna aurkeztu zuten eguaztenean Plaza Barrian gazte mugimenduko ki-deek, "gazte problematikari aurre egiteko, iraultzari buruz eztabaidatu eta gazteriaren kontzientzia kolektiboa berreskuratzea" helburu duen eguna. Apirilaren 22an izango da eta Soraluzen ospatuko da. Horretarako egun guztiko egitaraua antolatatu dute "partehartzailea oinarrian eta autogestioa eta koherentziari leiala" izango

dena. Goizeko 10.00etan tailerretan izenematea irekiko da kontzejupean. Bost tailer antolatu dituzte, Harremanak eta sexualitatea; Komunikazioa; Kultura; Hezkuntza eta nekazaritza. Frontoian herri bazkaria egongo da eta aurreratu dutenez 700 lagunendako bazkaria prestatuko dute, herriko nekazarien produktuekin. Txartelak egunean bertan erosiko dira. Bazkalostean zazpi gunetan banatu duten kultur maratoni parte hartzailearen txanda izango da: dantza afrikarrak eta egun batez zarpantzar izateko aukera, rokodromoa, zirkoa, Norte Apache euskal hip-hop taldea, graffite-roak, bideo eta irudiz osatutako erakusketa, kale animazioa, bertso hop saioa, kontzertu lasaiak, Didgeridoo emanaldia, txalaparta... besteak beste. Gauean herri-tarrak dantzara salto egitera animatu nahi dituzte, Izate eta Xero Xiette taldeekin.

Egitarau osoa:
www.topatu.info/matxinsalto

Matxinsalto ekimena babestu duten gazteetako batzuk



Debabarreneko emakumeen I. Topaketa

Maiatzaren 7an, Elgoibarko Kultur Etxean, Debabarreneko emakumeek lehenengo topaketa interkulturala egingo dute eta Debabarrenean bizi diren emakume guztiek dute parte hartzeko aukera. Topagune beraren aurkezpena egin eta hainbat hitzaldi antolatu dituzte, HAIZEA, SAFA, LACASIUM eta GARAI-PENA elkarteek. Ondoren, Topaguneaz gogoeta egingo dute kafe tertulia bitartez eta ondorioak ateraz itxiko dute batzarra. Izena emateko azken eguna apirilaren 29a da. Horretarako, balioak@debegesa.com helbidera mezu bat bidali edo 943 82 01 10 telefonora deitu (Ainara).



Aste Santuko mezak

Soraluzeko Kristau Elkarateak aste santuko meza ospakizunen berri eman du.

Apirilak 14: Adiskidetasunaren ospakizuna 20.00etan.

Apirilak 17: Erramu domeka izango da. Goizeko 11.00etan erramuen bedeinkapena eta meza. 12.15etan, erramuen bedeinkapena bigarren, prozesioa eta meza.

Apirilak 21: Eguen santuan goizeko 10.00etatik 11.00etara banakako penitentzia. Arratsaldeko 18.00etan azken afariko ospakizuna eta 21.00etan Jaunaren aurrean otoi-tza.

Apirilak 22: Barixaku santuan goizeko 9.00etan gurutz bidea gogoratu eta 17.00etan Jesusen herotzako ospakizuna.

Apirilak 23: Pazko gaubela gaueko 22.00etan

Apirilak 24: Pazko domeka eguerdiko 12.00etan.

Udaberriko lehen perlak

Udaberriak kolorez betetzen ditu inguruko paraje eta mendiak. Sasoi koloretsua izateaz gain, eguzki izpiek jotzen hasi bezain pronto berehala perla ederrak aurkitzen dira inguruko parajeetan. Hona hemen adibide politak, Soraluze inguruetan herri-arte bategi topatutako susak. On egin!





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Peio Etxeberriaren egoera salatuko dute

Gaur arratsaldeko 19:00etan Zinean Peio Etxeberria euskal preso politiko soraluzetarren egoera salatu eta honen askatasuna eskatzeko prentsaurrekoa eskainiko dute Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak eta bere senideek. Peiori, azken urteetan euskal preso politikoei ezarritako doktrina bereziaren ondorioz 30 urteko kartzela zigorra osorik betetzeko agindua ezarri diote.

Adin txikikoen zentroi buruzko jardunaldiak

Apirilaren 15ean, barixakua, adin txikikoen zentroyen inguruko gogoeta egiteko aukera izango da herriko gaztetxean. Adin txikikoen zentroi buruzko jardunaldia antolatu da horretarako eta honen bideo-emanaldia, eztabaida, afaria eta kontzertuak batuko ditu.

Egitaraua honakoa da:

19:30ean bideo-emanaldia: "menores y guardianes". Ondoren eztabaida.

21:30ean afaria

22:30ean kontzertuak:

Lagunita Mental (rumba punka Barakaldotik) eta beste talde bat.

Gaia lantzeko interesa dutenentzat, hurrengo jardunaldia apirilaren 16an egingo da Bilboko Izarbeltzen. Jasoko diren etekinak, errepresioaren aurkako borrokarako izango dira.



KZguneko ordutegia

Internet gunea apirilean goizez zabalduko dute, astelehenetik barixakura 9:00etatik 13:00ra bitartean. Informazio gehiago: 943 75 30 45.

2011ko udal aurrekontuak onartu dituzte

Azken udalbatzarrean 2011ko aurrekontuak bozkatu eta onartu zituzten Udal Gobernu Taldearen aldeko 5 botu, EAJ-ren abstentzioa eta PSE-EE alderdiaren kontrako botuekin (PP-ko ordezkaria ez zen azaldu). Aurten 400.000 euro gutxiago izango ditu udalak herriko proiektuak kudeatzeko:

Batzordeka horrela zatitu da 2011ko udal aurrekontua:

Gizarte Ongizatea: 114.560 euro.

Kultura: 137.625 euro.

Nekazaritza: 46.560 euro.

Hezkuntza: 45.520 euro.

Gazte saila: 5.402 euro.

Euskara: 39.787 euro.

Emakumea: 4.560 euro.

Haurreskolara zuzendutako partidagatik abstenitu da EAJ

Iker Aldazabalek alkateari gogoratu zion bigarren zuzendutako partidagatik abstenitu da EAJ. Aldazabalek alkateari gogoratu zion bigarren zuzendutako partidagatik abstenitu da EAJ. Aldazabalek alkateari gogoratu zion bigarren zuzendutako partidagatik abstenitu da EAJ.

PSE-EEK eta EAJ-k alkate hautagaiak aurkeztu dituzte

Maiatzeko udal hauteskundeetarako sozialistek Soledad del Bosque soraluzetarra aurkeztu zuten alkategai. Hautagai sozialista maiatzean hautatua izaten bada, peatonalizazioa eta herriko trafikoaren norabidea lehenera berrezarriko duela agindu du. EAJ-PNV alderdiak Iker Aldazabal aurkeztu du hautagai. Egoera ekonomikoaz hitz egin zuen, "oso kezagarria" dela eta lehentasuna horri buelta ematea izango dela esanez.

niko haurreskolarako partida onartu delako abstenitu direla.

Patricia Borinagak, diru partiden banaketa ezberdina izan zitekeelako ezetz bozkatu dutela argitu zuen eta "behintzat" Udal Gobernu Taldeak onartu duela eurek aurkeztutako haurreskolarako diru partida.

Haurreskola handitzea matrikulazioen araberakoa

Soraluzen haurreskola eskatzen diharduten amak eta haurdun daudenak agertu ziren saio aretora, haurreskola noizko egongo den jakinminez, "iraila segituan datorrela" eta.

Alkateak azaldu zuen egindako galdeketen arabera irailera bitartean nahikoa plaza badaudela oraingo haurreskolan, baina maiatzeko matrikulazioetan ikusiko dela gurasoen benetako asmoa zein den eta ondorioz, irailerako azpiegiturak handitzeko beharrik egongo den.



PSE-EE alderdikoek kiroldagiko erakusketan gelan egin zuten aurkezpena.



EAJk batzokia aukeratu zuen Iker hautagaia aurkezteko.

Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20 000 434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
 GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
 ETA PINTXO
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

SORALUZE 1936

Ahaztutako sufrimendua gogoratzeko garaia

Urtebete pasatxo da Udalak egindako deialdiari erantzunez, hainbat soraluzetarrek Soraluze 1936 Lan Taldea sortu zutela. Hilabeteotan jasotako informazioa eta materialekin, datorren apirilaren 16an "75 urteko isiltasuna hausten" erakusketa aurkeztuko dute. Gerra garaian gertatu zenaren inguruko gogoeta piztu nahi dute herrian.

2011 urte berezia da. 75 urte bete dira 1936ko uztailean Altxamendu Faszista eta milaka heriotza eragin zituen gerra piztu zutela.

Azken urteotan gero eta gehiago dira gari hartan gertatu ziren giza eskubideen aurkako urraketa eta injustiziak ezagutzeko lanean diharduten gizarte mugimenduak. Frankismoa amaitu osteko urteetan ere jarraitu duen isiltasuna haustea dute helburu Soraluze 1936 Lan Taldekoek ere eta "ahaztutako sufrimendua badela aitortzea" da horretarako lehen pausoa.

Ahalik eta babesik zabalena

Taldekieek argi dute taldean bezala herrian ere gaiaren inguruko bizipen eta iritzi ezberdinak daudela. Hargatik, herrian ahalik eta babes handiena lortzeko harremanak bideratu dituzte, alderdi politiko, eragile sindikal eta hainbat norbanakorekin. Gutxieneko bi helburutan ezarri dituzte herrian egingo diren ekimenen oinarriak: batetik, Francok legezko Errepublikaren aurka burutako altxamenduak eragindako gerran gertatutakoak gizarteratzea eta bestetik, ahaztutako sufrimenduari eta biktimei herri-mailako aitortza egitea. Lan Taldekoak oso gustora daude herriko eragileen aldetik jasotako erantzunarekin, guztiek euren aldekatasuna adierazi baitiete.

Taldea osatzen duten soraluzetarretako batzuk erakusketako lehen taula eskuetan dutela.



“75 urteko isiltasuna hausten” Erakusketa eta aurkezpen ekitaldia

Apirilaren 16an zabalduko dituzte ateak erakusketak. Erakusketa zabaldu aurretik, aurkezpen-ekitaldi hunkigarri bat egiteko asmoa dute lan-taldekoek, “erakusketari berotasun gehiago emateko eta lehenengo pauso honetan hala nahi dutenguztiak elkarrekin egon ahal izateko”. Ekitaldiaren ostean, erakusketaren ateak zabalduko dituzte publikoarentzako.

Erakusketan lan-taldeak urtebetean zehar bildutako informazioaren zati bat erakutsiko du. Errepublika garaitik (1.934) hasi eta gerra osteko lehenengo urteetara (1.942) bitarteko garaia dagokiona. Edukia nahiko modu orokorrean emango bada ere, tartean, 15 adinekori jasotako testigantzak, herriko artxiboetan eta inguruan aurkitutako dokumentu esanguratsuak, argazkiak eta hainbat material erakutsiko dira. Guztira 8 taula inguru osatu dituzte. Erakustaren beste helburu bat da, informazioa eta materiala biltzen jarraitzeko harreman-gunea izatea.

DATU ESANGURATSU BATZUK

- **22 HILDAKO.** Elizako artxiboetan aurkitutako zerrenda ez ofizial baten 22 hildakoren izenak datoz.
- **FRONTEA.** Sei hilabete egin zituen gerrako fronteak herrian. Nazionalak Munetako haitzetan zeuden eta Errepublikaren aldeko gudariak Iruren.
- **ITXARKUNDIA BATAILOIAN.** Errepublikaren alde borrokatu zuten askok Itxarkundia batailoian borroka egin zuten.

Egoitz Unamuno Soraluze 1936 Lan Taldeko kidea

75 urte pasatu dira. Posible izan da ezer jakitea?

Bai, posible da. Garai haretan bizi zan jentia gauza asko dauka goguan. Badira gauza batzuk inoiz ahazten ez diranak. Artxiboetan be informazino asko topatu dogu eta gero eta jente gehiago dator taldera zeozerekin: idatzitako memoriekin, konzentrazio guneetako paperekin, argazkiekin... Gainera gai honetan ixa zerotik abiatzen gara eta jasotako informazio dana da baliotsua.

Jasotako informazioa ezagutaraztia nahi dozue, zein helbururekin?

Helburua soraluzetar danen artian gai honen inguruko gogoeta piztea da. Herrixan gertatu zana jakitzeko eta ahaztuta gelditu zan hilketa eta sufrimendu asko izan zala aitortzeko biharra ikusten dogu. Azken bat, isilik egon bihar izan dabenen ahotsa entzun eta modu horretan zauriak sendatzen laguntzea da nahi doguna. Berandu dator, lehenengo pausotxo da... baina egin biharra daguala uste dogu. Hori bai, gai sensiblea da oindio eta ondo landu biharrekua.



Erakusketako taulak argazki, testigantza, dokumentu eta kontakizunekin osatu dituzte.



Gudariak osatutako Itxarkundia batailoian plazentziatar askok parte hartu zuten.

AURKEZPEN EKITALDIA

- **EGUNA:** Apirilak 16, zapatua.
- **ORDUA:** 13:30ean
- **LEKUA:** Zine Aretoa (200 lagun)
- **EDUKIA:** Osintxuko dantza taldea, bertsolariak, testigantzak bideoan...

Etorkizunean ekimen gehiago antolatzeko asmua daukazu?

Bai. Uda ostian herri mailako aitortza-ekitaldi handi bat egittia darabilkigu buruan baina oindio ez dago ezer lotuta. Hori bai. Adinekueri jasotako testigantze-kin DVD bat osatuko dogu eta aurrerago liburuxka bat osatzeko asmua dago. Poliki-poliki eta gauzak ondo eginaz juatia nahi dogu.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Aurten beteko dira 75 urte II. Errepublika Demokratikoaren aurkako Altxamendu Frankista eta osteko gerra gertatu zela. Sasoi hartan gertutakoak jaso eta herrian ahaztutako sufrimendua aitortzeko lanean dihardu Soraluze 1936 Lan Taldeak.

Gerra sasoiaren gertatu ziran kontuen berri jakin biharko genduke?

RUTH EIZAGIRRE
Langabetua



Egixa esateko nik ez dakit ixa ezer frankismuan gainian. Herenegun arte bizirik egon zan eta Franco noiz hil zan bakarrik daukagu akorduan. Informatzia ondo dago, hala ta be, ez dira gauzak lar nahastu bihar.

AMAIA ALDAI
Liburuzaina




Zenbat eta gehixago argittu hobe bakoitza bere tokixan geratzeko. Memoria Historikuan aldekuak ondo dabiz horretan. Jendian bizipenak jaso dittue eta konstatzen dittuztenak balore historiko haundixa dauke.

ALBERTO LOSADA
Fundiziñoako langilia



Zeoze gehixago jakin biharko genduke. Ni bi aldieri entzundakua naiz eta nork beria ikusten daben arren egixa da hamen gehixenak oso txarto pasatu zebela. Bakoitza bere lekuan ipini biharko litzake.

IÑAKI ALBERDI
Langilia



Gai honen inguruan ezjakinttasun izugarria dago eta zenbat eta gehixago jakin hobe. Informazio pixkat ondo etorriko litzake, baina horra heltzeko ze bide jorratu? Ez da galdera erreza.

Eman zure iritzia sarean





Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. Tel. 943 75 17 89



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**



Etxabe Harategia

Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

Apirileko kultur ekitaldiak

GAUR, apirilak 8

DJ JAIA Gaztetxean.
23:00etatik aurrera
Oren Bi_live, Papi, DJ Asi
Ant: Soraluzeko Gaztetxea

APIRILAREN 1etik 12ra

ERAKUSKETA:
"Emakume eta gizon homosexualak historian zehar".
Astegunetan 19:00etatik-20:30ra.
Zapatuetan 12:00etatik 13:30era,
kiroldegiko erakusketa-aretoa.
Ant: Udaleko Emakumearen Batzordea



APIRILAREN 14tik MAIATZAREN 7ra

ERAKUSKETA:
"Soraluze 1936".
Astegunetan 19:00etatik-20:30ra.
Zapatuetan 12:00etatik 13:30era,
kiroldegiko erakusketa-aretoa.
Ant: "Soraluze 1936" lan-taldea

APIRILAREN 15etik MAIATZAREN 1era

MARGO-ERAKUSKETA:
Ricardo Azkargorta
Inaugurazioa: Apirilak 15, 19:00etan
Astegunetan: 18:30etatik 20:30era
Zapatu eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00ra
Ant: Oreka Art aretoa

MAIATZAREN 6an, barixakua

ANTZEZLANA:
"Han izanik, hona naiz".
Joseba Sarrionandiaren ipuinak.
Zuzendaria: Borja Ruiz.
Antzezleak: Idoia Alberdi, Jon Gaubeka, Lorea Martinez, Mikel Lizarralde.
22:15ean zinian.
Ant: Apurka Antzerki Taldea.

Hilaren 13ko iluntzean etorriko da Korrika

Soraluzeko euskalakari denek Szita bat dute apirilaren 13an 17. korrikarekin. Korrika Batzordeak jakinarazi duenez, arratsaldeko 20:30ak inguruan hartuko du Soraluzek Elgoibartik datorren lekukoa, Saturixon.

Korrikak herritik egingo duen ibilbidea honakoa da:

Saturixotik hasi eta Maltzaga, Sagarrerreka, Mendiola industrialdea, Ezozi Bideko errotonda, Estaziño kala, Oleako zubia, Santa Ana kalea, Plaza Barrixa, Plaza Zaharra, Gabolatz eta Ezozi Bideko errotonda igaro ostean, Maltzagara bueltan, lekukoa, eibartarrek hartuko dute. Emozioz betetako lasterketa euskaldun eta parte hartzaileak herriko haur, gazte zein heldu batu nahi ditu, helburu zehatzarekin: herriko euskalakari denak euskararen aldeko mezuak nonahi zabaltzeko.



EGITARAUA

APIRILAREN 9an, zapatua:
PILOTA partiduak
12.00etan Kiroldegian

XABIER LETEN OMENEZKO
HERRI KANTALDIA.
22.00etan, Zinean
Sarrerak: kiroldegian salgai, 5 eurotan

APIRILAREN 12an, martitzena:
HITZALDIA
Euskal Herriko historia (1515-2012)
19.00etan, Gaztetxean.

APIRILAREN 13an, eguaztena:
KORRIKA EGUNA
Egitaraua:
15.30ean Korrika txikia
16.30ean Jolas eta eskulanak
guztiok elkarrekin, Plaza Zaharrean
19.30ean, Ongi etorri Korrika!

APIRILAREN 17an, domeka:
KORRIKA AMAIERA DONOSTIAN
*Autobusean apuntatzeko: AEK, Iratxo, Arrano edo Gaztelupe.



Ondo etorri udabarri!

Martxoaren 30ean musika eskolako ikasleek udaberriari ongi etorria emateko ohiko kontzertua eskaini zuten Zinean, Korrika kulturaren baitan antolatutako ekimena izan zen hau. Apirilaren 1ean ostera, rock konbo emanaldia eskaini zuten.

Iturria: Fernan Oregi

TXURITXU KAFETEGIA

Hondo handia lotutako daga berberentzat kaxan hain, gurek puztu la opari jartzen gure alorak.

Berriak izaten nahi gurek eskertzen gurek gurek izan nahi gurek gurek daga hain handiaren izaten

25 urte zuzen zerbitzura zuzi gurek.

MARI MAR HARATEGIA

Gurean Euskal Herriko produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Aritz Laskurain: "Gustora geratzen naiz egindako lanarekin"

Pilotari plaentxiarrak bere esku zegoen guztia egin du Binakako Txapelketako finalera heltzeko. Sebastian Gonzalez bikotekide, 22-14 ganoraz garaitu zituzten zapatuan Irujo eta Merino. Hala ere, biharamunean erabakiko zen finalean zein bikotek jokatu zuen. Horretarako, domekan, Xalak eta Barriolak irabazi egin behar zioten Olaizola II eta Beginori. 22-19 galdu zuten ostera eta finalak ihes egin die Sebas eta Aritzi.

Galdutako partiduek baldintzatu dute lehiaketa

Pilotariari txapelketaz galdetuta, aitortu du txapelketa aurretik galdu zituzten partiduek baldin-

tzatututela dena: "Xala eta Barriolan aurka galdu genduan Eibarren eta gero Aimarren-eta aurka be bai Labriten. Horrek bi porrotek zaildu zoskuen finalera sailkatzia". Dana dala, gustora geratu da egindakoarekin: "Txapelketa luzia izan da baina oso ondo ibili naizela uste dot. Lesinuak errespetatu nabe, joku ona egin dogu eta konformatzen naiz lortutakuakin, gustora geratu naiz". Sebastian bikote eta lagun ona duela eta bere ondoan pozik aritu dela esan du Laskurainek. Xala-Barriola eta Olaizola II-Beginok jokatu dute Binakako Finala beraz. Bilboko Bizkaia frontoian izango da, apirilaren 17an.

Joseba Garciak Udanara igoeran lehiatuko du

Joseba Garcia pilotua Mendiko Automobilismoko Euskadiko Txapelketa prestatzen ari da. Lehenengo proba apirilaren 30ean izango du, lau kilometro eta erdiko luzera duen Udanara igoeran. Iazko auto berberaz lehiatuko du Josebak, R-5 GT Turbo autoarekin eta zenbait aldaketa egiten ari zaizkio. Iaz Udanara igoeran Garcia onena

izan zen bere mailan, R Taldean, 4. Klasean. 38 pilotuk hartu zuten parte frogan eta soraluzetarra 12. postuan sailkatu zen, bere mailako lehena. Josebak Mendiko Automobilismo Txapelketan parte hartzen duen seigarren urtea izango da aurtengoa eta gogotsu dagoela jakinarazi dio aldizkari honi.

EMAITZAK

PELOTA

Eskuz Binakako IX. Txapelketa

Olaizola II – Begino	22
Gonzalez – Laskurain	19
Mtz de Irujo – Merino II	14
Gonzalez – Laskurain	22
Atxotegi – Andreu	22
Lazkano – Oreja	3
Atxotegi – Telletxea	17
Bengoetxea – Diez	22
Atxotegi – Irueta	22
Zubizarreta – Egaña	3

FUTBOLA

Sora (Erreg. A) – Landetxa F.T.	5-1
Usurbil F.T – Sora (Erreg. A)	1-1
Aretxabaleta C – Sora (Erreg. B)	5-1
Sora (Erreg. B) – Mutrikuarrak	0-2
Bergara "B" – Sora (Jub.)	1-2
Sora (Jub.) – Ilintxa	0-0
Sora (Kad.) – Aloña Mendi B	1-5
Aretxabaleta "B" – Sora (Kad.)	5-1

AGENDA

PELOTA

Domeka 10, 17:00etan Bilbon

Titin III – Laskurain
Berasaluze – Apraiz

Barixakua 15, 22:15ean Soraluzen

Bigarren mailako binakako partida
Buruzburuko aurrekanporaketa
partida:
Laskurain – Idoate edo Paskual
Sarrerak aurrez hartzeko:
661 259 009 (Olaia)

FUTBOLA

Zapatua 9, 16:30ean Ezozin

Sora (Erreg. A) – Gure Txokoa

Zapatua 26, 18:00etan Ibarren

Aretxabaleta K.E. – Sora (Erreg. B.)

Domeka 27, 10:00etan Ibarren

Aretxabaleta K.E. – Sora (Kad.)

Domeka 27, 17:00etan Ezozin

Sora (Jub.) – Ilintxa



Astlehenero kirol albisteak

Udaberriko mendi irteerak

Soraluzeko Mendi Taldeak udaberriarekin batera ekin dio mendi irteerak antolatzeari. Aurreko domekan 106 mendizalek euripean Xoxote-Erlo inguruak ezagutu zituzten. Hilaren 17an Arantzazun hasi eta Duru eta Enaitz igaro ostean, Urbian bukatuko dute mendi itzulia. Maiatzaren 1ean berriro, Otzaurtetik Txurrunku puntaraino joango dira.



Iturria: Niko Mendia

ZORION AGURRAK



Lore Leturiondo Garcia
Apirilán 11n, 6 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekuen partez!!!



Igor Bedaio Gonzalez
Apirilán 18xan 7 urte!
Muxu haundi asko polittori,
familixakuen aldetik.



Maitane Iñurrieta
Apirilán 11n 25 urte!
Zorionak eta patxo
haundi bat etxekuen partez!



Ongi etorri Elene!!
Danok ilusioz zain genden!
Zorionak amatxo
eta patxo goxo-goxo bat, danon partez!
Muuakaaa!!




Eider Varela
Apirilán 22xan! Zorionak
politta!!! Ondo pasatu zure
egunian!! Muxu haundi bat
lagunen eta etxekuen partez!



Amets Alberdi
Apirilán 12xan 2 urte!
Zorionak sorgintxo!
Jarraitu alai eta bihurritxo!
Pila maitte zaittugu!



Roke Akizu
Martxuan 30ian urtiak
betetzen dozuzelako,
zorionak!! Muxu haundi
asko etxekuen partez!



Ivan Couto
Apirilán 4an 6 urte!
Zorionak txapeldun!
Etxekuak




Zorionak Maitetxu!
Apirilaren 14an 22 urte! Zure
irrifarrakin eguna alaitzen
doskuzulako tori muxu mordo
Pileko laguntxoeren partetik




Maria Jesus Arrizabalaga
Apirilán 17xan! Zorionak
amama! Danon partez,
bereziki, Ekain, Oihan eta
Unain partez!




Ekain Larrañaga
7 urte bete dittuzulako
zorionak danon partez! Eta
muxu haundi bat Oihan eta
Unain partez!



Joritz Aizpitarte
Apirilán 28 urte!
Zorionak etxekuen eta
senarran partez!
Muxuak!



Andoni Calles
Apirilán 35 urte!
Zorionak etxeko danon
partez eta Muxu haundi bat
Amaia eta Unain partez!



Goizane ta Eguzkiñe
Hilaren 28an 28 urte beteak
Egusentia eta eguzkia...
oooo000 Zorionak polittak
Kuadrillakuen partetik

jaiotakoak

LORE BARRAGAN LASKURAIN
ASIER OSA RUIZ
IRINA TRIGO FAJARDO



hildakoak

FLORENTINO ARIZAGA ZUBIZARRETA
FEDERICO BENGEOA ELORZA
JULEN IÑURRIETA GOIKOETXEA



LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria: Iñarra harategian 30 euro gastatzeko bonoa.**



► **Irabazlea: Maria Jesus Arrizabalaga**

► **Loli, Eginberri okindegiko jabia da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.**



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Soraluze gogoan: <http://soraluzegogoan20.blogspot.com>

EUSKALDUNA ARMA FABRIKAKO JAIXA

40. hamarkadako erretratu hau Euskalduna arma lantegiko langilieri eta beren familixeri etaratako argazkixa da, urtero egitten zeben lantegiko ospakizunian jasotakua. Orain kiroldegixa dagan lekuan zeguan Euskalduna. Euskaldunako langiliak, urtero, egun bat aukeratzen zeben langilien jai eguna aldarrikatzeko eta lantegiko ekonomatetik hartzen zeben jairako bihar zittuen edari eta jateko danak. Erretratua Iturburu itturri gainian dagan plazatzxuan etarata dago.

Argazkiko batzuk: Carlos Tornos, Esther Larrañaga, Martina Zubizar, Maria Jesus Arriba, Narciso Larrañaga



PLACIDIA LOPEZ PUERTAS

2010EKO APIRILAREN 6AN
1. URTEURRENA

“Gure artetik joan zinen,
baina gurekin jarraitzen duzu”.

Etxekoak



Ignacio Zuloaga Institutua

EIBAR



Ate irekien eguna

Apirilak 13

Ordua 18:00

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak

Alemania - Ingalaterra

Jardiñeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

JAVIER MESTRE

Elektrizitate eta telekomunikazioak

Tel 943 75 30 98

j_mestre_camino@hotmail.com

Telekomunikazio erregistro zbk. 10357
Tentsio baxuko instalazioak erregistro zbk. 20/ccbt-2119
Fitxuri kalea 19-3, ezk. 20.590 Sorluze

Egokitu ezazue zuen antena kolektiboa LTDaren 2. fasearako

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



Soraluzeko Kooperatiba Elkartea

100 URTE
1910 - 2010

943 75 13 45



Lakuesta Optika

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Sorluze
T. 943 75 30 59

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



ARRANO tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

MGS

Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE

Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659

E-maila: mdnievas@mgs.es

www.mgs.es



Pil-Pileaneko DISEINU GRAFIKO ZERBITZUA



ONARRIZKO PAPERDEGIA KARTELAK ALDIZKARI eta ESKUORRIAK

**BINILOAK
ARGAZKIEN
TRATAMENDUA
LOGOTIPOAK**



Pil pilean elkarteak diseinu grafiko zerbitzua eskaintzen du. Interesatua bazaude jarri harremanetan diseinua@pilpilean.com edo 943 75 13 04 telefonora deituta. Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe.